



## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Norenak dira irudi eta izen hauek?”

2023ko urriaren 22a  
Urteko 29. igandea (A)

Mateo 22, 15-21

Fariseuek elkar hartu zuten, Jesusi galdera bat eginez tranpa jartzeko. Beraz, ikasle batzuk bidali zizkioten, Herodesen alderdikoekin, galdetzeraz: Maisu, badakigu egiazale zarena eta Jainkoaren bidea behar bezala irakasten duzuna; inoren zeresanak ez dizu axolarik, ez baitiozu begiratzen gizakiaren itxurari. Emaguzu, bada, zeure iritzia: zilegi al da Zesarri zerga ordaintzea, bai ala ez?

Haien maltzurkeria igarriz, Jesusek esan zien:

-Zergatik zatozkidate zirika, itxurazaleok? Ea, erakutsi zerga-txanpona.

Haiek denario bat aurkeztu zioten. Jesusek galdetu zien: -Norenak dira irudi eta izen hauek?

Erantzun zioten: -Zesarrenak.

Jesusek, orduan: -Eman, bada, Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari.

Jesusek, orduan: Eman, bada, Zesarrena Zesarri eta Jainkoarena Jainkoari.

## BIKTIMAK

José Antonio Pagola

Fariseuen sail batzuek, Antipasen aldekoekin bat eginik, Jesusi egin dioten galdera tranpa bat da, azpikeriaz prestatua, Jesus hiltzeko giro egokia prestatzen joateko: «Zilegi al da Zesarri zerga ordaintzea?»

Zilegi dela esaten badu, herriaren aurrean itsusi geldituko da Jesus eta galdu egingo du haren sostengua: horrela, errazago jokatu ahal izango dute haren kontra. Ez dela zilegi esaten badu, berriz, matxino iraultzailetzat salatu ahal izango dute erromatarren aurrean, hurbil diren Pazko jaietan Jerusalemara igo direnean Zesarren kontrako edozein matxinada-keinada itotzeko.

Beste ezer baino lehen, «zerga-moneta» erakusteko eskatu die Jesusek, eta esateko zeinenak diren irudia eta ikurra. Aterioek aitortu dute irudia Zesarrena dela, idazkunak dioten bezala: Tiberio Zesar, jainkozko Augustoren Seme Augusto, Pontifize Gorena. Bere keinuaz, espero ez zuten testuinguruan ezarri du Jesusek galdera.

Orduan lehen konklusioa ateratu du. Monetaren irudia Zesarrena bada, «eman Zesarri Zesarrena». Itzuli hari berea: moneta idolatriko hori, botere erlijiosoaren sinboloz irarri dena. Zeuen negozioretan erabiltzen baduzue, aitortzen ari zarete haren soberanotasuna. Bete zeuen eginbeharrak.

Baina Jesus ez da Erromako enperadorearen zerbitzari, baizik eta «Jainkoaren erregetzaren eta haren zuzentasunaren bila dabil»; horregatik, oharpen larria egin die segidan, inork galdetu ez dion zerbaitez: «Eman Jainkoari Jainkoarena». Monetak Tiberioren «irudia» du, baina gizakia Jainkoaren «irudi» da: harena da erabat. Ez eskaini, beraz, inoiz ere pertsona bat inongo botereri. Defenda ezazue.

Mendebaldean bizi dugun krisi ekonomikoak ez du irtenbide errazik duenik. Finantza-krisia baino gehiago gizatasun-krisia da. Beti handia izango litzatekeen ongizate materialak itsuturik, ekonomia-mailan berean ere eutsi ezina da biziera bizitzera heldu gara.

Ez da aski izan irtenbide teknikoak proposatzea. Geure biziera itzulikatu behar dugu, kontzientzia aldarazi behar da: lehiaketaren logikatik elkar lanera jo behar da: merkatuen animalia-goseari mugak ezarri beharra; aski esatearen etika berria ikasi beharra dugu.

Luze joko du krisiak. Urte zailak ditugu zain. Jesusen jarraitzaileek Ebanjelioan aurkitu behar dugu inspirazioa eta arnasa egoera hura era solidarioan bizi ahal izateko. Jesusi entzuna diogu gonbita zaurigarrienak diren biktimen ondoan egoteko: merkaturik boteretsuenen estrategien mende utziak direnen ondoan, alegia.